



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 28a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, hein batean aldatzen duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baita ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna. Osoko Bilkurak aintzat hartua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kirol federazioen eta kirol klub-
ben diru-laguntzei lotutako neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan zehapen-espediente bat irekitzea
Nafarroako laborategi klinikoak ekipo berriz hornitzeko enpresa esleipen-hartzaileari, eta hari kontratua
ez luzatzea. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioa euskalduntzeko plan strate-
giko bat diseina dezan, hizkuntza eskubideak bermatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Torturaren Prebentzioarako Ba-
tzordearen txostena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinen bidez Espainiako Estatua
zigortzen baita tortura salaketak ez ikertzeagatik. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehalako moratoria bat ezar dezan, Nafarroako Abiadura Handiko Korridorea eraikitzearekin zerikusia duen orotan proiektuak prestatu eta betetzeari eta baliabide publikoak bideratzeari dagokionez. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da probak egin ditzan gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloekin eta, halaber, aitortzen da munduan zehar egiten den lan desinteresatua. Mozioa erretiratzea (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen osoko zuzenketa bazter uztea, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, hein batean aldatzen duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen “Foru Legea, hein batean aldatzen duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, hein batean aldatzen duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta hura garatzen duten arauetan lege hutsune bat dago, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat estatu-mailako legeek ezartzen dituzten eskubide guztiak kontuan hartzen ez dituzten heinean.

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 24. artikulua honako hau dio: “Genero-indarkeriaren biktima den emakume funtzionarioak eskubidea izango du lanaldia murrizteko edo berriro antolatzeke, lantokiaren mugigarritasun geografikorako eta eszedentziarako, funtzionarioen legeria berezian ezarritakoaren arabera”.

Hura aplikatu eta garatzeko, Nafarroako Parlamentuak 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 16/2009 Foru Legean hogeita hirugarren xedapen gehigarria sartu zuen, zeinaren bidez eszedentzia aipagai duen 28. bis artikulua gehitu baitzitzaion Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginari.

Beste alde batetik, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuan eta apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuan arau berriak biltzen dira, genero-indarkeriaren kasuetan lanaldia murrizteari edo berriro antolatzeari dagokionez.

Baina arautu gabe zegoen mugigarritasun geografikoari dagokiona, eta ez da hori gertatzen, esate baterako, Estatuko araudian. Ildo horretatik, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 82. artikulua honako hau xedatzen du:

“Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, ordura arte lanean ziharduten udalerritan zuten lanpostua utzi behar dutenean, dagokien babesa edo gizarte-laguntza integrala benetan jaso dezaten, beste lanpostu batera aldatzeko eskubidea izanen dute; lanpostu horrek kidego, eskala edo lanbide-kategoria bera eta antzeko ezaugarriak izanen ditu, eta ez du zertan izan bete beharreko lanpostu hutsa. Hala ere, horrelako egoerarik gertatzen bada, administrazio publiko eskudunaren betebeharra izanen da pertsona horri jakinaraztea zer lanpostu huts dauden udalerritan berean edo interesdunak berriaz eskatzen dituen udalerritan.

Lekualdaketa hori nahitaezko lekualdaketatzat joko da.

Genero-indarkeriarekin zerikusia duten jarduketak eta prozeduretan biktimaren intimitatea babesteko da; batez ere, bere datu pertsonalak,

bere ondorengoak eta bere zaintza edo babespean den beste edozein pertsonarenak”

Beraz, bidezko da aipatu arauketa Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen esku-bideetan sartzea.

Beste alde batetik, Estatutuan, hasieratik, gutxi dira langileen aldi baterako administrazio-kontratuak buruz dauden arauak, eta ez dira aski administrazio publikoen zerbitzuko langileen kudeaketa egokia eramateko, batez ere gaurko egoeran, salbuespenezko neurriak direla-eta askoz maizago erabili behar izaten baitira administrazio-kontratuak. Horregatik guztiagatik, kudeaketa hobetzeko zein kontratudunen eskubideak bermatzeko, bidezko da arauketa hori osatzea.

Artikulu bakarra. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen da. Hona testu berria:

Bat. 35. bis artikulu berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“35. bis artikulua. Emakumearen aurkako indarkeriaren ondoriozko mugigarritasuna:

Genero-indarkeriaren biktima den Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko emakume enplegatuak utzi behar izan badu lan-zerbitzuak ematen zituen herria, horrela bere babesa edo gizarte-laguntza integralerako eskubidea gauzatzeko, bere lan-kategoriakoa den beste lanpostu bat betetzeko lehentasunezko eskubidea izanen du. Lanpostuak ez du izan behar derrigorrez bete beharreko lanpostu hutsa, eta enplegatuaren lan-sariak ere ez du inolako murrizketarik izanen.

Horrelako egoera gertatzen bada, organo eskudunaren betebeharra izanen da pertsona horri jakinaraztea zer lanpostu huts dauden udalerri berean edo interesdunak berariaz eskatzen dituen udalerrietan.

Lekualdaketak, hasiera batean, sei hilabeteko iraupena izanen du, eta irakasleei ikasturtea amaitu arte luzatu ahal izanen zaie. Denbora horretan Administrazioak langileari erreserbatu egin behar dio lehenago betetzen zuen lanpostua, eta langileak zerbitzu-eginkizunetan beteko du lanpostu berria. Aipatu aldia iragan ondoren, enplegatuak

hasierako lanpostura itzuli beharko du, edo, bestela, zerbitzu-eginkizunetan bete duen lanpostuan behin betiko gelditu”

Bj. 91. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“91. artikulua.

1. Administrazio-araubideko kontrataziorako, berariazko kontratua eginen da, idatziz eta epe jakin baterako.

2. Lanaldi partzialeko administrazio-kontratua egin ahal izanen da, ordezkatzeko den pertsonak lanaldia murriztua badu, edo lanaldi partzialeko lanpostu huts bat aldi baterako bete behar denean.

Aipatu kasuak salbu, administrazio-araubidean kontratatutako langileek zerbitzuak lanaldi osoko araubidean emanen dituzte.

3. Aurreko paragrafoan ezarritakotik salbuetsiko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak administrazio-araubidean kontratatzen dituen langileak. Langile horiei lanaldi osoko, partzialeko edo laguntza jarraiturako kontratua egin ahal izanen zaie.

4. Hezkuntza Departamentuak lanaldi partzialeko kontratuak egin ahal izanen ditu, baldin eta, ikastetxeetako antolaketa araubidearen ondorioz, langile finkoek ezin badiete zenbait beharrei aurre egin, eta lan horiek lanaldi partzialeko langileak kontratatuz betetzen ahal badira.

5. Lanaldi osoko kontratua duten langileek lanaldia heren batean edo erdian murrizteko aukera izanen dute, funtzionarioen era eta baldintza beretan, betiere zerbitzuko beharrek ahalbidetzen badute interes partikularra dela eta. Aipatu kasuan, bestelako kontratu bat eginen da, lanaldi partzialekoa, lanaldi murrizketa hori ordezkatzeko”

Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak betekizun berriak ezartzen ditu sozietate publikoek abalak eta maileguak eman ahal izateko.

Aipatutako foru legeak, 75.1, 82. bis eta 82. ter artikuluetan, ezartzen du ezen bai abalak bai maileguak ematea foru lege bidez baimendu beharra dagoela, eta legezko aurreikuspen bat ezartzen du bi kasuetarako; legezko aurreikuspen horren arabera, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak mailegu eta abaletako uneoroko gehieneko arrisku bizia ezarriko du, bai eta biek ekitaldi bakoitzean izanen duten gehieneko bolumena ere.

Hala eta guztiz ere, oraingo inguruabarrei erreparatuta, Nafarroako sozietate publikoek dagokien aldaketa horren aplikazioa ezin da denboran bat etorrarazi Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen aurreikuspen batekin, zeren eta lege hori ez baita onetsi azken bi ekitaldietan. Horrenbestez, araubide iragankor bat ezarri beharra dago, zeinak sozietate publikoek gutxieneko

operatibotasuna emanen baitie mailegu eta abalei dagokienez, une hauetan eragiketa horiek ez daitezkeen ezinbestez lotuta egon aurrekontuei buruzko legearekin.

Artikulu bakarra. Xedapen iragankor bat gehitzen zaio maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeari, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duenari. Hona testua:

“Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 75.1 eta 82. ter.1 artikuluetan aurreikusitakoa betetzen ez den bitartean –sozietate publikoek abalak eta maileguak emateari buruzko baimena Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen bidez eman beharri dagokionez, haietako gehieneko arrisku bizia eta gehieneko bolumena ezarrita–, baimena ematen da sozietate publikoek abalak eta maileguak eman ditzaten, betiere honako muga hauekin:

– Urtean eman daitezkeen abalen gehieneko bolumena: 15 milioi euro.

– 2014ko ekitaldirako abaletako gehieneko arrisku bizia: 185 milioi euro; kopuru hori egungo gehieneko arrisku biziari 15 milioi euro gehitzearen emaitza da. Hurreneko ekitaldietarako, abaletako gehieneko arrisku bizia izanen da aurreko ekitaldiaren amaieran dagoen gehieneko arrisku biziari 15 milioi euro gehitzearen emaitza.

– Urtean eman daitezkeen maileguen gehieneko bolumena: 30 milioi euro.

– 2014ko ekitaldirako maileguetako gehieneko arrisku bizia: 180 milioi euro; kopuru hori, egungo gehieneko arrisku biziari 30 milioi euro gehitzearen emaitza da. Hurreneko ekitaldietarako, maileguetako gehieneko arrisku bizia izanen da aurreko ekitaldiaren amaieran dagoen gehieneko arrisku biziari 30 milioi euro gehitzearen emaitza.”

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baita ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea foru lege proposamen bat, zeinaren bidez arautzen baita ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna. Proposamen hori Bildu-Nafarroa

eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu zuten, eta 2014ko abuztuaren 19ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kirol federazioen eta kirol klub en diru-laguntzei lotutako neurriak har ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kirol federazioen eta kirol klub en diru-laguntzei lotutako neurriak har ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2015erako alda dezan Nafarroako kirol federazioei diru-laguntzak emateko kontuan hartu beharreko oinarri arautzaileak onesten dituen foru agindua, bertan zalutasun-irizpideak jasotzeko eta burokrazia sinplifikatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kirolaren Mahaiaren agindua betez batzorde misto bat sor dezan, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren eta kirol klub en federazioen artekoa, haiei eragiten dieten diru-laguntzak arautzen dituzten irizpideak adosteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat aurki dezan 2013ko eta 2014ko diru-laguntzetarako, federazioei beren bideragarritasuna eta biziraupena ahalbidetuko dizkiena, kontuan hartuta delegazio bidez betetzen dituztela berez Nafarroako Gobernuari dagozkion zenbait eginkizun."

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan zehapen-espedita bat irekitzea Nafarroako laborategi klinikoak ekipo berriz hornitzeko enpresa esleipen-hartzaileari, eta hari kontratua ez luzatzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan zehapen-espedita bat irekitzea Nafarroako laborategi klinikoak ekipo berriz hornitzeko enpresa esleipen-hartzaileari, eta hari kontratua ez luzatzea."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Parlamentuak Nafarroako Gobernuo Osasun Departamentua premiatzen du azter dezan zehapen-espedita bat irekitzea eta Nafarroako laborategi klinikoak errektiboz, materialez eta beharreko ekipoz hornitzeko kontratua ez luzatzea enpresa esleipen-hartzaileari –Abbot Laboratories– horren indarraldia bukatutakoan.

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernuo Osasun Departamentua premiatzen du bi hilabeteko epean beste proposamen bat egin dezan, errealista eta posibilista, honako hauek jasoko dituen:

- Kronograma xehakatu bat, Abbot Laboratories behartuko duena Nafarroako Laborategi Bateratuan prozedura guztien ezarpena normalizatzera.

- Laborategiak bateratzeko prozesuaren egiazko jarraipen bat, eta esleipen-kontratuan jasotako zehapen neurrien aplikazioa.

- Langileen prestakuntza eta garapen profesionala bultzatzea, lizitazioaren baldintza-orrietan aurreikusitakoari jarraikiz"

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioa euskalduntzeko plan estrategiko bat diseina dezan, hizkuntza eskubideak bermatzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioa euskalduntzeko plan estrategiko bat diseina dezan, hizkuntza eskubideak bermatzeko."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztu

tutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko urriaren 3ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Torturaren Prebentziorako Batzordearen txostena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinen bidez Espainiako Estatua zigortzen baita tortura salaketak ez ikertzeagatik.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Torturaren Prebentziorako Batzordearen txostena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinen bidez Espainiako Estatua zigortzen baita tortura salaketak ez ikertzeagatik.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko urriaren 17ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berehalako moratoria bat ezar dezan, Nafarroako Abiadura Handiko Korridorea eraikitzearekin zerikusia duen orotan proiektuak prestatu eta betetzeari eta baliabide publikoak bideratzeari dagokionez.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berehalako moratoria bat ezar dezan, Nafarroako Abiadura Handiko Korridorea eraikitzearekin zerikusia duen orotan proiektuak prestatu eta betetzeari eta baliabide publikoak bideratzeari dagokionez."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko urriaren 21eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da probak egin ditzan gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloekin eta, halaber, aitortzen da munduan zehar egiten den lan desinteresatua.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarrak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen probak egin zitzaizkion gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloekin

eta, halaber, aitortzen zen munduan zehar egiten den lan desinteresatua, eta 2014ko urriaren 17ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

